

MLV5en 1. mintegia • Ander Egurtzegi

# Euskal herskari zaharren gauzatze fonetikoa



# Euskal herskari modernoen oposaketaren gauzatze fonetikoa

Gaur egun, euskaraz herskari ahostunak VOT negatibodun herskari ahostun bezala gauzatzen dira hitz hasieran eta hurbilkari bezala bokalar-tean eta urkarien ostean (/ld/ -> [ɫd] taldea kenduta), gazteleraz eta katalanez bezala.

Herskari ahoskabeak hasperenik gabe (VOT laburrarekin) ahoskatzen dira mendebaldeko euskalkietan.

Ekialdeko euskalkietan hasperendunak (VOT luzea) ere badaude, baina oposaketa oso mugatua da.

# Euskal herskari modernoen oposaketaren gauzatze fonetikoa

Fonema	Hitz hasieran	Hitzaren erdian
/p/	[p <sup>(h)</sup> -]	[-p <sup>(h)</sup> -]
/b/	[b-]	[-β̞-]
/t/	[t <sup>(h)</sup> -]	[-t <sup>(h)</sup> -]
/d/	[d-]	[-ð̞-]
/k/	[k <sup>(h)</sup> -]	[-k <sup>(h)</sup> -]
/g/	[g-]	[-ɣ̞-]

# Euskal herskari zaharren oposaketa: aurreko proposamenak

- Martinet (1950) + Mitxelenak onartu eta garatu (1957, 1977)
- Trask (1985)
- Hualde (1997, 1999)

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Martinet (1950)

Indar handiena izan duen proposamena Martinet-ena da (1950).

Mitxelenak (1957, 1977) onartu eta zabaldu zuen.

Danesarentzako proposatutako sistemaren oposaketa analogoa:  
fortis eta lenis segmentuen arteko oposaketa.

Aitzin euskararen leherkariak kokapenaren arabera gauzatze  
fonetiko ezberdinak zituzten.

# Martinet-ek (1950) proposaturiko herskarien ahoskera

Fonema	Hitz hasiera (azentuduna)	Bokalartea (azentugabea)
/b/	[b̥-]	[-β̥-]
/t/	[t <sup>h</sup> -]	[-t-] / [-d̥-]
/d/	[d̥-]	[-ð̥-]
/k/	[k <sup>h</sup> -]	[-k-] / [-g̥-]
/g/	[g̥-]	[-ɣ̥-]

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Martinet (1950)

Proposamen honen aldeko ebidentzia:

- Hitz hasierako \*T<sup>h</sup>- > h- > ∅.
- Martinetek berreraikitako hitz hasierako azentuera demarkatiboa.

Hitz hasierako debuccalizazioak indarra hartu du azken urteotan (Lakarra, prentsan), baina Egurtzegi eta Elordietak (2013) Martinet-en azentuera sistema baztertu zuten.



# Euskal herskari zaharren oposaketa: Trask (1985)

Herskari simple eta geminatuen arteko oposizioa proposatu zuen Trask-ek (1985), nahiz eta gero atzera egin (1997). Proposamen honen aldeko ebidentzia hitz elkarketan gertatutako neutraltzeetan ikusten du:

errege + bide	->	erret bide	>	errepide
ez + dakit	->	eztakit		

Hala ere, (i) ez da ikusten zergatik horrelako taldeak fortis/lenis oposaketaren kontrako eta geminazioaren aldeko ebidentziatzat har daitezkeen; (ii) talde hauek ez dira zaharregiak (\*eze > ez, cf. gazi vs. gatz).





# Euskal herskari zaharren oposaketa: Hualde (1997, 1999)

Hualderen oinarrizko ideia testigaturik dugun sistematik gehiegi ez aldentzea da. Trask-ek bezala, Hualdek ere hitz elkarketak aurkezten ditu ebidentziatzat, kasu berriak ekarriz:

menditik dator	→	menditi tator
gathiak bezala	→	gathia pezala
ez gara	→	ezkara

Aurretik emandako arrazoiei gehitu dakieke hitz amaierako herskariak oso berantiarrak direla euskaraz (Artiagoitia 1990, 1993).

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Proposamen berria

Segmentuen gauzatze fonetikoa ez da berdina izan behar hitzaren kokapen ezberdinetan: euskara modernoan ahostunak kokapenaren arabera ezberdin gauzatzen dira, esaterako.

Beraz, herskarien gauzatze fonetikoa berreraikitze kokapenen araberako ebidentzia bilatuko dugu.

Hitz amaierako kokapena ez da berreraiki behar, kodan dauden herskari guztiak onset posizioan berreraiki daitezkeelako aurreko garaietan (Artiagoitia 1990, 1993).

$/t\#/$ ,  $/k\#/$  < \*-da, \*-ga (cf. bart vs. barda, \*duda > Oih. dud > dut)

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Herskari ahoskabe edo fortisak

Proposamena: Herskari ahoskabe edo fortisak hitzaren kokapen gehienetan hasperenarekin ahoskatzen ziren.

- Herskari ahoskabeen hasperentasuna gordetzen duten euskalkietan honakoa bai hitz hasieran (khatiña, khe, etab.) eta baita hitz erdian (ethorri, ikhusi, etab.) ere ager daiteke.
- Denboran atzera joanda, akitanieraz ere (Gorrotxategi 1984) herskari zenbait hasperenarekin agertzen dira izkiriaturik, eta beste zenbait <tt> edo <cc> bezalako grafema segidekin, zeintzuk agian herskari hasperendunak adierazteko ere erabil zitezkeen.



# Euskal herskari zaharren oposaketa: Herskari ahoskabe edo fortisak

Akitanierazko izenen artean hurrengo herskari ahoskabe hasperendun potentzialak aurki daitezke:

Hontharris, Baisothar, Attaco, Sembetten, Lohitton, Ittixonis, Idiatte, Iscitto, Tottonis, Urchatetelli, Ombecco, Senicco, Sunduccae, Borocco, Accaten, Andreconni, Sembecconi, Sembeocci, Siricconis, Erriappo, etab.

Idazkera hau hitz erdian baino ez zen erabiltzen, horrek hitz hasierari buruzko informazio gutxi uzten digula. Talsco vs. Halsco-k herskari hasperendun bat edo hots aldaketa bat (\*T<sup>h</sup> > h) erakutsi dezake. Kasu bietan hitz hasiereko hasperenketaren ebidentzia litzateke.

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Herskari ahoskabe edo fortisak

Hitz hasieran, ordea, herskari ahoskabe edo indartsuak ez dira batere ohikoak euskaraz (Martinet 1950):

Hitz hasierako herskari ahoskabe edo bortitzak lehendabizi afrikatu, gero frikari eta gero hasperen bihurtu ziren sistematikoki.

$T^h > h / \# \_ :$

har-tu vs. e-kharr-i, hor vs. e-thorr-i, hur vs. i-thurr-i, huts vs. i-khus-i, has-i vs. i-khas-i, etab. (Lakarra, prentsan).

Hipotesi honek hitz hasierako herskari serie hau aipatutako bilakabideari dagokion garaian hasperenduna izatea suposatzen du.

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Herskari ahostun edo lenisak

Hitz erdian egungo gauzatze hurbilkaria aldezen da gara zaharrago baterako ere, ebidentzia berria agertzen ez den bitartean.

Erdi Aroan antzeko ebakera, bokalaratean garai goiztiarretik galtzen zirelako (cf. XI-XIII mendeak):

Soracoiz	(< Sorabakoitz)
Echarri/Echerri	(< Etxeberri)
Sorauren	(< Soraguren)



# Euskal herskari zaharren oposaketa: Herskari ahostun edo lenisak

Hitz hasierako lenis seriearen izaera fonetikoa guztien artean zehazteko zailena da.

Latin eta erromantzetik mailegatutako hitzen herskariak serie bakarrean batu izan dira, baina zelan ebakitzen ziren?

Lat. pace(m)	>	bake
Lat. ballaena(m)	>	balea
Lat. *tastare	>	dastatu
Lat. denariu(m)	>	diru, diharü
Lat. corpus	>	gorputz
Lat. granu(m)	>	garau



# Euskal herskari zaharren oposaketa: Herskari ahostun edo lenisak

Hitz hasierako herskari hasperendunen galera proposatuta, aitzin euskaraz geratu ziren hitz hasierako herskari bakarrak leneak ziren, Martinet-en arabera ahostun ahoskabetuak (eztandarekin batera hasten zen VOT-arekin).

Latinaren kontaktuaren bidez ez zen herskari bortitzik duen hitzik sartu euskaran; latinaren herskari guztiak lenis serieira egokitu ziren.

Honen ondorioz, euskararen hitz hasierako herskari serie bakarraren ahoskera garai horretan latinak edota erromantzeak zituen bi herskari serieetatik hurbil kokatuko litzateke, bi euskal herskari serieen bokalarteko ahoskeretarik baino askoz hurbilago.





# Euskal herskari zaharren oposaketa: Herskari ahostun edo lenisak

Egoera berezi honek mailegaketan ikus daitekeen hitz hasierako herskarien neutralizazioa azaltzen lagunduko luke.

Zer gehiago argitzen digu proposamen honek? Herskarien “ahoskabetasun” asimilazio deitu izan dena, Egurtzegik (prestatzen) spread-glottis ezaugarriaren metatesi bezala analizatzen duena.

DV(C).T<sup>h</sup>V(C) > T<sup>h</sup>V(C).TV(C):

barkha(tü)	>	pharka(tü)
gorphutz	>	khorphutz
gathea	>	khatea
bipher	>	phiper



# Euskal herskari zaharren oposaketa: Herskari ahostun edo lenisak

Akitanieraren ebidentzia:

Idazkeran hitz hasieran herskarien ahostean bariazioa aurki daiteke, ez ordea hitz erdian.

Cison, Cisonten, Cissonbonnis vs. Gisondoni

Porconi, Porconis vs. Borconis

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Proposamen berria

Fonema	Hitz hasieran	Hitzaren barnean
/p/	[p <sup>h</sup> -]	[-p <sup>h</sup> -]
/b/	[b̥-]	[-β̥-]
/t/	[t <sup>h</sup> -]	[-t <sup>h</sup> -]
/d/	[d̥-]	[-ð̥-]
/k/	[k <sup>h</sup> -]	[-k <sup>h</sup> -]
/g/	[g̥-]	[-ɣ̥-]

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Proposamen berria

Laryngeal realism teoria jarraituz gero (Honeybone 2005, i.a.), berreraikitako oposaketa [spread glottis] sistema bat izango litzateke, egungo [voice] sistemaren ezberdina.

Proposamen honen arabera, beraz, euskarak oposaketaren funtsaren aldaketa jasan zuen, hizkuntza germanikoen antzekoa den oposaketa batetik bere inguruko hizkuntza erromantzeen antzekoa den batera.

Honen moduko kontaktuaren ondoriozko aldaketak beste Europako hizkuntza zenbaitetan ikus daitezke, yiddish, holandesa eta bretoiera kasu (Iosad 2017).

# Euskal herskari zaharren oposaketa: Proposamen berria

Aldaketa honek ondorio zenbait dakartza, horien artean egungo euskaran herskarietan aktiboki ebakitzen den ezaugarria [voice] izatea, euskara zaharragoan [spread glottis] izango litzatekeela.

Aldaketa honen ebidentzia txistukari+herskari taldeetan aurki dezakegu: lehen talde hauen ahotsa ahoskabearen alde asimilatzen zen bitartean, egun ahostuntze bat gertatzen da horren ordez:

Lehen: erret-bide -> errepide, ez + dakit -> eztakit, bipher > phiper.

Orain: desgogo > de[ɰ]gogo, asmo > a[ɰ]mo, ezberdin > e[ɰ]berdin, ez-deus -> e[ɰ]deus.

# Ondorioak

Euskal herskari zaharren ebakera fonetikoari dagokion proposamen berria aurkeztu dut, ebidentzia mota ezberdinetan oinarrituta (bariazio dialektala, prozesu fonologikoak, hizkuntzaren testigantza zaharrak...)

Euskarak herskarien oposaketan [SG] -> [voice] aldaketa tipologiko bat izan zuela proposatu da, hizkuntza erromantzeetara hurbildu zuena, gaskoiera edo gaztelera bezalakoekin kontaktuaren ondorio izan daitekeena.

Proposamen berri hau ez da Martinet-en proposamenaren oso ezberdina, baina aurkeztu dudana aldaketa tipologiko berriak euskaraz aurki daitezkeen bilakabide eta distribuzio zenbait azal ditzake.